

# KOSTUEN EGITURA

## AURKIBIDEA:

- Kostu finkoak
- Kostu aldagarriak
- Eskala-ekonomiak
- Hedapen-ekonomiak

## KOSTU FINKOAK

Jakinda gure enpresaren produktuaren oinarria kolorearen aldaketa dela, ezinbestekoa da guk koloreztatzeko baliabide horiek ordaintzea. Horren ondorioz, **makinen mantenua kostu finkoa da (zeharkako kostua)**, hileroko 12 makinek errebisioa pasatu behar dutelako. Horrez gain, logikoa da gure eginbeharrak egiteko nolabaiteko leku bat izatea. Horregatik, **guk alokatzen dugun 300 metro karratuko pabeloia ere kostu finko batzuk suposatzen dizkigu (zeharkako kostua)**. Horrez gain, **argia, elektrizitatea eta gasaren kostuak ere finkoak dira (zeharkako kostuak)**.

**Horrez gain, kontutuan hartu behar da ere langileen soldata (kostu zuzena)**

Horren ondorioz, logikoa da gure negozioan hasierako inbertsioa oso handia izatea guk kalitatezko produktuak egin nahi ditugulako.



## KOSTU ALDAGARRIAK

Gure biltegitratze-sistema **Just In Time** da. Horrek esan nahi du, guk jendeak eskatzen duenaren arabera ekoizten dugula. Oso albiste zehatzak eduki behar ditugu jendearen beharrengan, izan ere, gure metalezko notilen oinarria beste enpresa bati erosten diogu eta kantitateak beti kalkulatu behar ditugu. Horren ondorioz, guk erosten ditugun **metalezko botilen kopuruaren kostuak aldakorak dira.(kostu zuzena)**



Hori esanda guk erosten ditugun kolorezko **mota-bakoitzeko tinta kopurua aldakorra da (kostu zuzena)**

Horrez gain, betidanik guk hoberena nahi izan dugu bezeroentzat. Horregatik tinta eman ondoren enbalaje onenak bilatzen ditugu guk egindako produktu hauek ahalik eta hoberen iris daitezzen beraien helmugara. Horren ondorioz **enbalaje-kopuruaren kostua aldakorra da (kostu zuzena)**. Hori gutxi ez balitz, gure produktuak maila nazionalean banatzen dira. Horren harira, guk sakabanatu behar ditugun produktu kopuruak argi eduki behar ditugu, **garraioa kostu aldakorra delako (kostu zuzena)**.

<b>KOSTU FINKOAK</b>	<b>KOSTU ALDAKORRAK</b>
<b>300 metro karratuko pabelloia</b>	<b>Metalezko botilen kostua</b>
<b>Tintatzeko makinen kostua (errebisioak)</b>	<b>Mota bakoitzeko tinta kopuruaren kostua</b>
<b>Langileen soldatak</b>	<b>Enbalaje-kopuruaren kostua</b>
<b>Argia eta gasa</b>	<b>Garraioa</b>

### **ESKALA-EKONOMIAK**

Gure enpresan beste guztiaren aurretik errealistak gara. Horren ondorioz, ez dugu eskala-ekonomia ezartzeko proposamen seriorik egin, oraingoz ez dugulako ezer irabazi gure produktua ekoitziz. Baina, gure produktuak arrakasta edukiko balu gure helburua botilak margotzeko makina gehiago erostea izango litzake, horrela ekoizpen gehiago edukiko geneukeelako. Horrez gain, biltegi handiagoak erosiko genituzke, logikoki gehiago ekoizten dugulako eta komenigarria delako marjin handiago bat edukitzea.

### **HEDAPEN-EKONOMIAK**

Egia da edozein enpresak eduki beharko lukeela nolabaiteko hedapen-ekonomia. Zoritxarrez, gure enpresa sortu dugun heinean oraindik ez dugu hedatzea erabaki. Izan ere, oraindik ez dakigu non saldu dezakegun gehien, horren ondorioz hedapen-ekonomia hauek baitan emateko gomendagarria izango litzake salmenta martxan jarri arte igarotzea. Gerora, diru-iturriak eta etekinak maximizatzeko aukerarik onena aukeratzeko.



